

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA ORDENANTZA FISKALEN GAINEAN 2021. EKITALDIRAKO

I.- AURREKARIAK

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak, bere VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berrikuntza batzuk sartu dizkio aurreko erregulazioari, helburu nagusi izanik herritarren parte-hartzea handitzea arauak prestatzeko prozeduran.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 133. artikuluan honela xedatzen du:

“1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienen puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.”*

Gainera, 11/1989 Foru Arauak, uztaila 5ekoak, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen erregulatzailerik, bere 7. artikuluan, xedatzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerriei dagozkiena, Foru Arau honek ezartzen duen esparruan, bere zergen kudeaketa, ikuskaritza eta bilketa, zeinak egingo diren, foru arau udal zergen erregulatzailerik eta horien garapenerako emandako bestelako xedapenetan ezartzen diren espezialitateei kalterik egin gabe, Foru Zerga Arau Orokorrean eta horren garapenerako emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek, beren ordenantza fiskalen bitartez, hartu ahal izango dute bakoitzaren antolaketa-erregimen eta funtzionamendu propioaren aurreko atalean aipatzen den arautegia, eta moldaketa horrek ezingo du hautsi aipatutako arautegi horren eduki materiala.

ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza Fiskalek gutxienez eduki hauek izango dituzte:

a) Zehaztea zerga-egitatea, subjektu pasiboa, arduradunak, salbuespenak, murriztapenak eta hobariak, zerga-oinarria eta likidazio-oinarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta zergaren sortzapena.

b) Deklarazio eta diru-sarreraren araubideak.

c) Onartze-data eta aplikatzen hasteko data.

Ordenantza Fiskal hauek onartzeko akordioak dagozkien zergak ezartzearekin batera hartuko dira.

Aipatutako Ordenantzak aldatzeko akordioek horien eraginpean dauden arauen erredakzio berria eta onartze-data eta aplikatzen hasteko data jaso beharko dituzte.

Bestalde, 39/2015 Legeko lehen xedapen gehigarriak ondorengo ezartzen du:

1. Gaia dela eta bereziak diren legeetan erregulatutako administrazio-prozedurek, lege honetan aurreikusitako izapideetako bat eskatzen ez badute edo izapide gehigarriak edo bestelakoak erregulatzen badituzte, lege berezi horietan xedatutakoari jarraituko diote.

2. Honako jarduketa eta prozedura hauek araudi espezifikuari jarraituko diote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

Ildo horretatik, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 111. artikulua xedatzen du Tokiko tributuak ezartzeko, kentzeko eta antolatzeko erabakiak, baita horiei dagozkien ordenantza fiskalak aldatzeko ere, tokiko tributuak ezarri eta antolatzeko arau berezietan xedatutakoaren arabera onartu, argitaratu eta indarrean jarriko direla.

Hala ere, administrazio publikoen jardunean gailendu behar den gardentasuna dela eta, Azkoitiko Udalak erabaki du aurretiazko kontsulta Publikoa burutzea ordenantza fiskalak eta prezio publikoak prestatzeko eta aldatzeko prozeduran, 2021ko ekitaldirako.

II.-KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

2021ko Ordenantza fiskalen prestaketarekin eta aldaketarekin, hainbat arazo konpondu nahi dira.

1 Ordenantza Fiskalak 2021 ekitaldira egokitu behar dira. Horregatik, Zerbitzuen kostuari aurre egitearren, Udalaren diru-sarrerari eusteko helburuarekin, %1,2eko gehikuntza ezartzen da, izaera orokorrarekin, 2020ko KPI-ari dagokiona, udal-zerga eta tasetarako.

2.-Zergei dagokienez honako aldaketa hauek proposatzen dira:

2.1 Bizitegi-izaera duten ondasun higiezinari buruzko zerga:

Azkoitiko irizpide orokorra da alderaketa egitea Azkoitiaren tankerako beste hogeitau udalerrirekin eta, hala, batezbesteko karga fiskala ezartzea.

3.-Tasei dagokienez honako aldaketa hauek proposatzen dira:

3.1 Ur-hornidura, saneamendu eta azpiegiturengatik tasei dagokienez ur partzuergoaren tasak izango dira indarrean 2021eko ekitaldian, 2018ko azaroko Bilkura osoak Gipuzkoako Ur kontsoltzioak onarturiko Uraren ziklo osoari dagokion zerbitzua arautzen duen ordenantza onartu baitzuen.

3.2 Hondakinak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko zerbitzuaren tasa:

Tasa ordaintzeko salbuespena kentzen zaie nekazaritzako gizarte segurantzari alta emanda dauden baserriari, indarrean dagoen zerga-araudira egokitze aldera.

Merkataritza edo eta zerbitzu establezimenduen tasan parte berriak sortzea nahi da, azaleraren arabera. Fabrikek dituzten parte neurriak zehazteko erabilitako irizpide berdinak hartuz, zerbitzu establezimenduen tasa bereiztuko da.

3.3 Saltzaile ibiltariei zerbitzuak jartzeagatik azoketan, azoka txikietan eta abarretan ezarritako tasaren azterketa egingo da beste udalerririk batzuekin alderatuz .

3.4. Udalaren herri jabetzapeko edo herri erabilerarako zortasunako landabideen gozamen eta erabilera arrunt edo berezia egiteagatik tasa berri bat ezarriko denaren azterketa egingo da 2021eko ordenantza fiskaletarako.

III.- ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Adierazi behar da, ordenantza fiskalen aldaketak behin betiko onartuta egon behar dutela eta GAOari argitaratuta, arautzen dituzten tributuen sortzapen-data baino lehen.

Horregatik, ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean lege-aginduz sortzen diren aldizkako muga-eguneko zergari buruz ari garenean, edo Udalak sortzapen-data hori finkatu

diren tasei buruz ari garenean, beharrezkoa da urtarrilaren 1aren aurretik GAOn argitaratuta egotea aldatu diren arauak edo aginduak. Ondorioz, aldaketaren izapidetza une honetan hasi behar da, indarrean egon dadin hurrengo ekitaldian.

IV.- ORDENANTZA FISKALEN HELBURUAK 2021. EKITALDIRAKO

2021eko Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoen aldaketaren helburu nagusia da ekitaldira egokitzea zerbitzuen kostuei aurre egin ahal izateko. Horrela, tarifa batzuk zerbitzuaren kostu errealerara egokitu nahi dira, berauek aplikatzerakoan sortu diren inguruabarren ondorioz. Azkoitiko Udalak printzipio hauetan egokitzen ditu Ordenantza Fiskalak:

a) Beharra eta eraginkortasuna. 2021eko ekitaldirako ordenantza fiskalen ekimena interes orokorrak justifikatzen du; aurreko atalean adierazten dira horrekin lortu nahi diren helburuak, eta bera da tresnarik egokiena horiek lortzen direla bermatzeko.

b) Proporzionaltasuna. Ekimenak ezinbesteko erregulazioa dauka zerbitzu publikoen kudeaketa egiteko beharrei erantzuteko.

c) Segurtasun juridikoa. Ekimena gainerako ordenamendu juridikoarekin modu koherentean gauzatzen da; esparru arauemaile egonkor, aurrez aise ikusteko modukoa, osoa, argia eta segurtasuneko sortzen du, eta horrek ekimenaren ezagutza eta ulermena errazten ditu.

d) Gardentasuna. Azkoitiko udalak behar diren baliabideak jartzen ditu indarrean dagoen araudira iristeko modua erraza, unibertsala eta eguneratua izan dadin; eta kontsulta publikoari esker hartzaile izan daitezkeen pertsonen parte aktiboa har dezakete 2021eko ekitaldirako ordenantza fiskalen lanketan.

e) Eraginkortasuna. Ekimen arauemaile orok saihestu egin behar ditu behar ez diren karga administratiboak, eta arrazionalizatu egin behar ditu, aplikatzean, baliabide publikoen kudeaketa.